

GEURE HISTORIA ILDOTZEN

Peralta (2002.1.31)

Zergatik hobesten dugu Nafarroako edo Nafar Herriaren Historia izendatzea, eta ez Euskal Herriko edo Euskadiko Historia, edota gazteleraz esaten den "País Vasco"-ren Historia? Alde batetik, orain arte geure herria aipatzean, bakarrik euskara edo euskal kulturarekin lotu izan dugulako eta, bestetik, ez duelako geure herriak, historikoki, izan dugun une politiko indartsuena nabarmenki jasotzen. Gainera, geure eraketan aske izan garen garaiko egituraketa politikoa izan dugularik, eta ondoren ezarri dizkigutenak indar politiko horren ordezkari izendapen gutxitu eta desitxuratuak besterik ez direnez gero, gaur egunekoek nahiz aurrekoek ezin dezakete islatu Nafarroako Estatu-nazioaren zapalkuntzak bere baitan daraman eduki edo muin politikoa. Beraz, Nafar Herriak galdu duen botere politikoaz gain, bere askatasuna lortzean dagokion Nafartasuna berreskuratu behar du.

Konkistek ez zuten amaitu gure herriaren indar politiko guztiarekin, eta guztiz ito nahian mendeak daramatzate. Erresistentzia egiten eta geure Estatu-nazioaren indar politiko osoa berreskuratzen ez dugu arte handirik izan; eta hori da, hain zuzen, geure zapalketaren arrazoietakoa bat. Eman izan diren hainbat gudutan, herriaren barne benetako asmotan, Nafarroako estatuaren askatasuna begiztatu arren, alde batekoek nahiz bestekoek guda irabazita izanda ere, estrategia egokiaren faltaz, porrota alde aurretik eskuratuta izan dute. Ez dugu Estatu mailako estrategiarik gauzatu, eta horrek Estatu zapaltzaileen estrategietan murgiltzera eramán gaitu; bestalde, geuri ez zegokigun guda odoltsuetan sartuz, eta aurrez aurre borrokatuz beharrezkoa den batasuna apurtzea ere lortu izan dute.

Estatu zapaltzaileak euren Historia egitean asmo irrigarri bezain meneratzaileak Nafarroako estatuaren historia ezeztu eta gaitzesten ahaleginduko dira. Herriak, geurea ere, eraketa politiko desberdinez baliatu izan dira bere biziraupenerako; aldiz, goi mailako Estatu antolaketa lortu izan dutenek, batik bat, segurta dezakete bere lekutxoá gaurko munduan. Estatu modernoá izatea lortu duten herriek, duten subiranotasunagatik, euren Historia ahalbidetzeaz gain burutzeko premia dute. Beraz, Historiak zentzua du, horrelako estatu-politikaren alde apustu eginez gero. Alabaina, Estatu zapaltzaileek konkistatutako lurraldeetan euren Historia ezarriko dute, benetan zapalkuntza agerian jartzen duen Estatu zapalduaren Historiaren aurka joanaz.

Era sotilean, egoerak behartuz gero, hutsaldutako edo indargabetutako Historiak ere maneiátuko dituzte: zenbaitetan euskal/vasco bezalako ezaugarri kulturalen bat edo erabiliz; edota administrazioaren barneko erkidego, departamentu, probintzi... egitura zapaltzaileen bitartez; bestetan, geure piriniar Estatuaren Historiari muzin eginez, edozelako kokapen geografiko bide dela, irensten dute geure Historia. Begien bistakoa da, orain arte egin ditugun erruetatik ikasiz, geure Historiari benetako izate Estatala eman behar diogula; zapaltzaileek benetako errealitatea desitxuratzeko erabili dituzten histori en ordezkari, askatasunerako behar dugun Estatuaren Historia helburu estrategikotzat hartuz.

Gainontzeko Estatu-Nazioetan bezala, geurean ere, Historiaren eragilea herria dela jakina da. Bestalde, zapaltzaileen aurka geure luraren alde borrokatzeak subjektu politikoaren beharrezana areagotzen du. Geure subjektu politikoak leinu, tribu, etnia, nazio, erreinu, estatu eta abarreko antolakuntza politikoak izan baditu ere, denetan eragilea Herri bera da. Geu naturatik urrunduz geroztik, gizatalde espezifiko bilakatu gara; eta oraindik Herriak bizirik dirauenez, etorkizunaren protagonistak izaten jarraituko dugu. Beraz, Historian zehar era ezberdinez antolatu garen subjektu politikoa izaten jarraitzen dugu.

Hasiera hasieratik, hots, gizataldeen erara antolatu ginenetik, geure identitatearen jabe izan gara. Herriak biziraupenerako talde kontzientzia behar du izan, lehenbaitlehen bere asmo eta helburuak burutzeko. Horien artean, Naturatik bizi beharrak lurralde baten ustiapena mugatzea legoke. Horrela, bere asmo eta helburuak betetzean indar politikoa areagotuz gero, beste herriren batek asmo eta helburu ezberdinak balitu, aurre egiteko baldintzetan egongo litzateke. Asmo eta helburu ezberdinak dituzten beste herriekin jorratzen da Historia. Nolanahi ere, ez bakarrik herri berriak sortzeko, desagertzeko arriskua ere berdintsua da. Horren gakoa gizataldearen interesak eta helburuak burutzeko behar haineko indarra izatean datza. Hori dela eta, identitatearen osasun egoera boterearen indar kopuruak emango digu.

Laburbilduz, Lurralde berean herri zapaltzailea eta zapaldua antagonikoak direnez, aurkaritza ezeztatu arte ezinbesteko borroka emango da.

ERRONKA GEUREA DA, HISTORIA ERE BAI.